



ALEA


arabako aldizkaria

**HAMABIGARRENARI
EKITEKO, HAMAIKA
ARRAZOI**



Izan zaituz ALEAkide
www.alea.eus/harpidetzak

Kutxabank **EUSKARALDIA**rekin



11 Egun euskaraz.
Kutxabanken saiatzera goaz. Animatuko zara?



Hamaika egun baino gehiago



ARITZ MARTINEZ DE LUNA

ALEA ALDIZKARIKO ZUZENDARIA

Euskaraldian buru-belarri murgilduta, batzuek belarriak tente izango dituzte egunotan euskara noiz entzungo zain; beste batzuek, aldiz, edozein aukera baliatu nahiko dute mihia dantzan jarri eta euskara lau haizetara zabaltzeko. Lortuko al dugu baina hamaika egunez euskaraz bizitzea?

Ariketa honetako pausurik errazena izen-ematea izan da, eta zentzu horretan lortutako arrakasta inork gutxik jarri ahal du zalantzan. Milaka lagunek egin dugu bat egitasmoarekin, denok baikaude prest euskararen aldeko keinuak egiteko. Halere, izen-ematek haratago, zailago suertatuko zaigu ezbairik gabe hautatu dugun rolari hutsik egin gabe eustea.

Jendeak ospakizun edo jai kutsuz jantzi nahi izan du Euskaraldia, eta benetan sakonki hausnartutako ariketa bezala barneratutakoak gutxiago izan direlakoan nago. Gure burua azterketa batera aurkeztearekin alderatu beharko genuke Euskaraldia, eta, zentzu horretan, nork prestatu du bere burua erronka horri behar bezala erantzuteko?

Goiz da emaitzak neurtzen hasteko. Eta, zintzo esanda, euskararen normalizazioan ematen diren urrats guztiak izango dira beti ongietorriak. Batzuetan eraginkorrago eta besteetan xumeago. Modu horretan, Euskaraldia abiapuntu ezin hobea izango da euskaldun guztiontzat: gure burua neurtu, gure hizkuntz ohiturei buruz hausnartu, aldaketarako zenbait gako identifikatu eta pixkanaka pausuak ematen joateko bidea erakutsiko baitigu.

Ibilbide luze baten hasieran besterik ez gaude. Urrats asko egin beharko dugu bidean begiz jota dugun helmuga doi-doi ikusten hasteko. Haimaka egun hauek igarota hasiko da benetako bidea, eta bide horretan laguntza emango diguten baliabideak eskertuko ditugu seguruenik.

Gure apaltasunetik, horixe da eskaini nahi dizueguna: egunerokoan euskaraz bizi ahal izateko komunikazio euskarriak eskaintzea. *Ahobizi* eta *belarriprest* izatetik, bizitzako esparru guztietara euskara zabal dezagun. Bilakatu gaitezen *irakurlebihurri*, *entzulegogotsu* edo dena delakoa. Ibilbide horretan zehar, ALEA zuen alboan izango duzue beti. ■

**IBILBIDE BATEN
HASIERAN GAUDE, ETA
HAMAIKA EGUN HAUEK
IGAROTA HASIKO DA
BENETAKO BIDEA**



ZERGA-TARIFA LAUA

UDAL ZERGA ETA TASAK
HILEAN-HILEAN ORDAINTZEKO,
EROSOTASUN OSOZ

10

KUOTA

INFO+

Herritarrei laguntzeko bulegoetan
010 telefonoaren bidez (945 161 100 Gasteiztik kanpo egonez gero)





ALEA 174

2018-11-30 OSTEGUNA

AZALEKO IRUDIA:

ALEA

Aurkibidea

- 3 Editoriala.
- 6 Lazarraga sariak, Joan Perez Lazarraga euskal idazlearen omenez.
- 12 Gasteiz. "Indarrak biderkatzeko aukera".
- 14 Aiaraldea. "Jai erraldoia abenduaren 2an".
- 16 Gorbeialdea. "Sorpresu ugari Gorbeialdean".
- 18 Añana. "Zailtasunek handitu dute".
- 20 Lautada. "Lautadan, pauso bat aurretik".
- 22 Mendialdea. "Mendian izanik, aldaparik ez".
- 24 Arabako Errioxa. "Mantso, bain aurrera".
- 26 Trebiñu. "Keinu txikiekin, pauso handia".
- 30 Agenda.

Bultzatzaileak



berria goiena

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

*Araba da
erronka*

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Miriam Biteri

Esti Lanao

Estiburu Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU inprimategia

Tirada: 4.300 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

ALEAk ez ditu bere gain hartzen IRITZIA saillean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Arabako euskararen lehen testigantza

Herraldeko lan arloan euskararen alde egindako lana saritzea helburu duten Lazarraga sariak banatu berri dituzte. Baina zergatik Lazarraga sariak? XVI. mende bukaera eta XVII. hasiera bitartean euskaraz idazten aitzindaria izan zen idazle Joan Perez Lazarragak eman die izena.

Testua: **Mirian Biteri.**
Argazkiak: **Ricardo Gomez**
eta **Mirian Biteri.**

Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia txertatzeko eta handitzen laguntzeko egindako lanaren errekonozimendu gisa ematen dira bi urtetik behin Lazarraga sariak. Dagoeneko bost bider antolatu dira, eta, aurtengoan, honako bost entitatek eta lagunek jaso dute merezitako aitortza: Aiaraldea kooperatiba elkarteak, Trebiñu sagardotegiak, Baiona hortz klinikak, Gamarrako ostalaritza eskolak eta Paul Urkijo zinemagileak.

Sariak Joan Perez Lazarragari zor diote izena; hain justu ere, 1547 eta 1548 urte artean Barrundiako Larrea herrian jaiotako eta 1605 urteko apirilaren 12an hil zen euskal idazleari. Oñatiko jatorrizko oinetxetik abiatuta, 1439 urteaz geroztik, erroak Arabako ekialdeko lautadan finkatuta zituen noblezia txikiko familiakoa izan zen Larreako Lazarraga dorreko jauna.

XVI. mendeko euskarazko testu bakarretakoa

Bernart Etxeparerekin batera, euskal literaturan, Pizkunde garaiko egilerik bakarretakoa da eta Hego Euskal Herriko zaharrena. Haren bi idazlan ezagutzen dira: gaztelaniaz idatzita dagoen lazarragatarren leinuaren kronika genealogiko bat eta euskarazko



ERROTA
HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Julián de Apraiz, 1
01012 VITORIA-GASTEIZ

Lazarragaren eskuizkribua izeneko lanen bilduma. XVI. mendetik iritsi den euskarazko testu bakarretakoa da azken hori. Argitaratu denaren arabera, Borja Aginagalde historialariak aurkitu omen zuen Madrilgo zaharki-salerosle batean; Gipuzkoako Diputazioak erosi zuen eta 2004. urteko otsailean aurkeztu zuen jendaurrean.

Eskuizkribuaren datazioa ez da ziurra, baina egindako azterketek ondorioztatu dute 1567tik 1602ra bitartean idatzi omen zuela, eta, hortaz, tresna ezinhobe bat dela XVI eta XVII mendeetako euskararen, eta, bereziki, Arabako euskalkia eta mendebaleko euskararen historia argitzeko, inoiz dokumentatu gabeko adizki eta hitzak dakartzalako. Horrez gain, Euskal Herria (*eusquel erria*) izena dakarren lehen idazkia ere bada; hiru aldiz agertzen da eskuizkribu osoan.

Artzain nobela eta poema zein kantuen bilduma

Bi zatitan dago banatuta lan sorta: batetik, heren bat hartzen duen artzain nobela; eta bestetik, askotariko poema eta kantuen bilduma, haietarik 37 euskaraz idatziak. Denera, 51 orri (102 orrialde) ditu, eta 111.000 bat karaktere; gehienak euskaraz idatzita daudenak (% 88 inguru), eta gainerakoak gaztelaniaz; pleguak, dena dela, ez daude osorik, eta gutxienez beste hamasei orri galdu dira.

Gaur egun, Gasteizko Bibat museoan dago ikusgai Lazarragaren eskuizkribu originala, Gipuzkoako eta Arabako Diputazioen arteko hitzarmen bati esker. Horrez gain, Interneten ere badago guztien eskura. ■■■



Gasteizko Bibat museoan dago ikusgai eskuizkribu originala.

EUSKARALDIA
395

Alegria-Dulantzi Dulantzin ere,
nahi baduzu euskaraz

Alegria-Dulantziko Udala - Ayuntamiento de Alegria-Dulantzi
Telf: 945 420 027 | Fax: 945 420 394 | aalegria.ayala@ayto.araba.eus | www.alegria-dulantzi.eus



Paul Urkijo
Zinegilea

Errementari filmeko zuzendariaren proiektua "euskararen parte" dela, eta hortaz, Lazarraga saria irabaztea "polita" dela dio Paul Urkijok. *Patxi Errementari* euskal ipuina dela, eta beraz, filma ere euskaraz izatea "logika hutsa" dela uste badu ere, gaineratu du hainbat ekoizlek proposatu diotela beste hizkuntza batean egitea, merkatu zabalago batera heltzeko: "Bihotzeko

logikak, baina, euskaraz egitera animatu ninduen". Ez da damutzen; pelikulak oso harrera ona izan duelako eta sariak jasotzeaz gain, Netflixen ere badagoelako ikusgai: "Mundu osoko egongeletan dago".

Aurrera begira, euskaraz lan egiten jarraitzeko asmoa duela esan du: "*Errementari*-ren ildotik doan beste istoria batekin nabil, euskaraz baita ere", iragarri du Urkijok.




Nortxu Nuñez
Baiona hertz klinika

"Sorpresaz eta pozarren" jaso du saria Gasteizko Lakuabizkarra auzoan dagoen Baiona hertz klinikako arduradun Nortxu Nuñezek. Gasteizen euskara zabaltzea eta egunerokotasunean erabiltzea "erabaki pertsonala" dela aipatu du, eta "zaila" bada ere, bera ahalegintzen dela nabarmendu du: "Lanean, bezeroekin hitz egiten, eta lankideak euskaldunak izan

daitezen saiatzen naiz. Baina, egia esan, oso gogorra da; traba handiak daude".

Euskaraldia dinamikarekin "itxaropentsu" agertu da: "Hunkituta nago horrekin, egoerari buelta emateko baliogarria izan daitekeela iruditzen zait. Euskara non erabili dezakezun jakinarazten dizu horrek".

Etorkizunean, hertz klinikan bide beretik jarraitzeko asmoa duela ere gaineratu du.



Jon/Julen Markinez
Trobiñu sagardotegia

Egindako "errekonozimendu" gisa hartu dute Trobiñuko sagardotegiko jabeek aitortza hori. Trobiñuko eta Arabako ostalaritzaren egoera "ezberdinak" direla aipatu ostean, honakoa gaineratu dute: "Gure etxera datorren jende asko harrিতuta geratzen da Trobiñun sagardotegi bat dagoelako, eta, are gehiago, euskaraz aritzen garela esaten diogunean. Baina, zorionez, gero eta ohikoagoa da".

Normalizazio prozesu horretan, euskaldunak izanik, bezeroarekin duten lehen hitza euskaraz dela aipatu dute, eta lagun horiekin "beste giro bat" sortzen dela aitortu dute. Horrez gain, bertso afariak egiten direla eta mintzalagun taldeak eta euskaltegietatik etorritakoak ere hartzen dituztela azaldu dute. Etorkizunari begira ere, proiektuak ildo beretik egingo du aurrera.

11 BER BI

festibala

hamaita ber bi,
hamaita berba egin!

VITORIA
GASTEIZ
green capital



Hartu zure lekua eta jarri eroso

22 EGUN / 33 JARDUNALDI / 11 ANTOLATZAILE

ALEA aldizkariaren 4. urteurrena: EUSKARALDIAN izandako esperientzien trukaketa, JOSU KAREAGA magoa eta BIDLAPURRAK taldearen kontzertua · "HORMAN ERLOJUA DUEN ETXEA" filma haur eta gaztetxoentzat · "MUSUA" ikuskizuna. Pirritx, Porrotx eta Marimotots · EUSKARAREN EGUNA Salburuan: "Rock eroak" antzerkia familientzat, txokolate beroa, kandelen mosaikoa eta bizilagunen argakia · Adierazpen instituzionala eta VITORIA-GASTEIZ itzulpen sarien banaketa · Kandelen dinamika eta kalejira · "ESKU HARRIAK: OTEIZAREN (H)ARIA". Disziplinar-teko ikuskizuna · LA NOUVEAU (Rudi Rosenberg) filma · MINTZODROMOA · "KOLORE ANITZAK" antzerki interaktiboa familientzat · "BALLERINA" filma haur eta gaztetxoentzat · "BAKEAN DAGOENA BAKEAN UTZI" binakako bakarriketa · "MUNDU BAT AHOZ AHO" dokumentala eta solasaldia Beñat Gaztelumendirekin · Diskoaren aurkezpena eta kontzertu akustikoa HESIAN taldeko Zuriñe Hildalgorekin.

informazio gehiago
v-g.eus/11berbi



Izar Mendiguren
Aiaraldea kooperatiba elk.

Euskararen komunitateari zuzendutako saria dela aipatu du Izar Mendigurenek, "aitortza bat delako egiten den lanari". Gogoratu du bospasei lan ildotan egiten dutela lan: komunikazioan, Aiaraldea dago; eta ildo sozialean, hezkuntza, feminismo, elikadura burujabetza, ekonomia sozial eraldatzaile edo kultur sorkuntza taldeak daude. Hain justu ere, "euskaraz gure balioetan

oinarrituta, jendartea eraldatzea eta euskaraz saretzea da helburua", azaldu du Mendigurenek.

Aiaraldean euskaraz duen presentziaren inguruan, aipatu du "zorionez" gero eta handiagoa dela, "ohiturak aldatzen" doazelako eta "tresna gehiago" eskaintzen direlako. Bere garaian egindako "apustua" betetzen badoa ere, "helmugara" ez direla iritsi gaineratu du.



Peio Garmendia
Gamarra ostalaritza eskola

"Poztasun bikoitza" jaso du Gasteizko Gamarra ostalaritza eskolako zuzendari Peio Garmendiak. Batetik, eskola bera saritua izan delako, eta, bestetik, bertako ikasle batek ere saria jaso duelako. Gogorazi du ikastetxeak 30 urte daramatzala lanean, eta hasieran formazio guztia gaztelera hutsean bazen ere, denborarekin euskarazko zikloak sartzen joan direla. Egun, 260 bat ikasle eta 40

irakasle ditu eta bi ziklo euskaraz eskaintzeaz gain, okintza, pastelgintza eta konfiteria B ereduan daude.

Denborarekin, eskolako giroa ere "nabarmen" euskaldundu dela esan du. "Poliki baina bagabiltza pausuak ematen komunikazioan eta baita ikasleen praktiken arloan ere".

Lanean jarraituko dute; erronken artean, eskaintzen duten enplegu formakuntza euskalduntzen hastea dago.



**ITURRIETA
SAGARDEGIA**



Bº Arraga, 2 / Aramaio
☎ 945 44 53 85 / 685 72 15 93
jj.iturrieta@Yahoo.com
iturrietasagardotegia.blogspot.com.es



TXOTX EGIN!!



Kuartango
SAGARDEGIA

Servicio de autobús
Zuhatsu-Kuartango 21
t.699 747 730 · 945 362 683



Servicio de autobús

TREBIÑU Sagardotegia
945 244 852-657 736 599 · ASKARTZA-TREBIÑU



Arabako arabako sagardoa!

EUSKARALDIA

Indarrak biderkatzeko aukera

Gogotsu sartu da Euskaraldia Gasteizen, eta urtero hiriburuan data hauetan izan ohi diren euskararen aldeko ekimenekin bat egin du, gainera. Hilaren 14ra arte luzatuko da euskararen aldeko programa.

JUANMA GALLEGO

Urterokoa da Gasteizen euskararen aldeko hitzordua abenduan, baina aurtengoa are bereziagoa izaten ari da, Euskaraldia ere tartean dagoelako. Hortaz, sinergie probetxua atera eta ahalegina biderkatzea erabaki dute Gasteizko euskaltzaleek. Erabaki horren emaitza da *11 Ber Bi festibala*; Udalak, Diputazioak eta Euskara Elkarguneak ahaleginak batu dituzte norabide horretan.

Euskaraldiarekin batera, joan den ostiralean abiatu da ekimena, eta abenduaren 14ra arte luzatuko da. Aspertzeko betarik ez da izan, eta ez dirudi hurrengo egunetan ere hala izango denik, mota guztietako gustuen arabera egitaraua osatu dutelako. Antzerkia, filmak, hitzaldiak, kontzertuak edota karaokea, esaterako. Dena dela, gazteei begirako jarduerak dute protagonismo berezia egitarauan.

Asteburuan Kantari ikuskizuna egin dute, gaztetxoaren artean euskarazko kantak sustatu aldera. Aurreko egunetan



Kalera ez ezik, lantoki eta ikastetxeetara ere zabaldu da Euskaraldia. ARANTZABELA IKASTOLA

egindako entseguen emaitzak bikain ikusi ahal izan dira Dendaraban jarritako oholtzan, eta bertaratu ez direnek *alea.eus* webguneren bitartez ikusi ahal izan dute ikuskizuna, zuzenean. Zabalganean ere haurrentzako giroa izan da larunbatean: besteak beste, auzo etxean Diskofesta prestatu dute, haur eta gurasoen pozerako.

Astlehenean lehen balorazioak egiteko unea iritsi da. Parral tabernan batu dira ariketa sozialean parte hartzen ari diren zenbait lagun, eta ordura arte izandako esperientzia partekatu dute bertan. Ekimenaren erdialdean egindako behin-behineko balorazio batean, Gasteizko Euskaraldiaren arduradun Oier



945 25 38 94
Info@iparmotor.com
Leon Kalea, 01003 Vitoria-Gasteiz



Zure kotxea
negurako
prest?

Azkarraga pozik azaldu da orain arteko ibilbidearekin. "Egia da agian neguko arropa gainean daramagulako edo, txapak ez direla hain nabarmen ikusten kaletik, eta horrek zaildu egiten du ekimena, baina argi dago kalean askoz euskara gehiago entzuten ari dela. Espero genuen baino parte-hartzaile gehiago izaten ari gara, gainera, eta jendeak oraindik izena ematen jarraitzen du. Gizarte etxe gehienetan txapak amaitu dira".

ALEAren urteurrena

Ekitaldiekin jarraituz, ostiral honetan egingo da ALEA jaia Artium museoan, Josu Kareaga magoaren eta Bidelapurak taldearen laguntzarekin. Modu horretan, ALEAk laster egingo dituen lau urteak ospatuko ditugu. Baina egutegiak beteta

jarraitzen du ondorengo egunetan ere. Besteak beste, abenduaren 3an ospatuko den Euskararen Egunaekin batera, politikariek ohiko adierazpen instituzionala egingo dute, eta haur eta gazte literaturaren alorrean euskarara egindako itzulpen hoberenentzako sariak banatuko dituzte udaletxean. Egun horretako arratsaldean etorriko da, ordea, ikusgarriena: neguko ordutegiaren iluntasuna argitzeko, kandelaz egindako mosaiko erraldoia osatuko dute Andre Mari Zuriaren plazan, eta

ABENDUAREN 3AN KANDELAZ OSATUTAKO MOSAIKO ERRALDOIA EGINGO DUTE, ETA ONDOREN KALEJIRA

ondoren, musika lagun, Oihanederrera kalejiran abiatuko dira gasteiztarrak.

Ondorengo egunak ere ekimenez beteta datoz: besteak beste, ikus-entzunezkoak, mintzodromoak, liburu baten aurkezpena eta ginkana izango dira. Abenduaren 13an izango da azken hitzordu garrantzitsua, ekimenari behar bezalako agurra emateko. Egun horretan Hesian taldearen *Hasiera* diskoaren aurkezpena egingo dute. Zuriñe Hidalgo eta Fran Urias Oihanederren izango dira, kontzertu akustikoa eskaintzeko. Seguruenera, eta ordurako Euskaraldia ofizialki amaituta egon arren, artean txapa asko ikusiko dira paparretan, baina, zorte pixka batekin txapa horien esanahia buruan ere ondo txertatuta geratuko da. ■

The poster features a large yellow arrow pointing upwards and to the right. In the center, the text "ZURE BIDE LAGUN" is written in a bold, sans-serif font. To the right of this text is a circular badge with a white border containing the text "hauteskunde sindikalak 2018/2022". Below the main text, the slogan "Lan eta bizi duinak bermatzeko, banaka baino hobeto, guztiok elkarrekin!" is written in a smaller font. At the bottom left is the LAB logo, and at the bottom right are four circular icons with the words "ERALDA TZAILEA", "SOLIDARIOA", "EKINTZAILEA", and "ERAGIN KORRA" inside them.

Jai erraldoia abenduaren 2an

Aiaraldeko ehunka ahobizik eta belarriprestek Laudion ospatuko dute Euskaraldiaren amaiera jai, abenduaren 2an; zutabeetan gerturatuko dira jaialdiaren epizentrora herri eta auzoetako lagunak.

AIMAR GUTIERREZ / AIARALDEA

Egitarau anitza antolatu du Aiaraldeko Euskalgintzaren Kontseiluak abenduaren 2rako. Euskaraldiari amaiera eman eta Euskararen Nazioarteko Eguna festa erraldoi batekin ospatuko dute aiaraldearek Laudion. Berbodromoak, herri bazkari erraldoiak edota Ze Esatek! taldearen kontzertuak osatuko dute egun osoko eskaintza, besteak beste. Milaka *ahobizi* eta *belarriprest* elkartuko dira Laudioko Plazan euskaraz bizitako 11 egunak borobiltzeko.

Aiaraldeko hainbat txokotako herritarrak zutabeetan gerturatuko dira jaialdiaren epizentro izango den Laudioko Herriko plazara. Zutabeetara batzeko hitzordua 10:15ean jarri dute.

Lau zutabe egongo dira guztira. Olarte zutabea Gardeako tren geltokian elkartuko da eta Urduña, Luiaondo eta Gardeako herritarrak elkartuko ditu bertan. Laudioko herritarren zutabea Larra zutabea izango da eta Latorroko zentroen plazatik abiatuko da Herriko Plazara. Okondo, Artziniega, Aiara eta Ugarte auzoko herritarrek Ugarteko plazan dute zita, Goienuri zutabeen elkarturik jaitsiko dira jai guneraino. Azkenik Areta zutabea Aretako kultur etxetik abiatuko da; bertan

Arrankudiaga-Zollo, Arakaldo, Orozko eta Aretako herritarrek parte hartuko dute. Zutabe guztiak 11:00etan abiatuko dira.

Herriko plaza jaiaren erdigune
Zutabe guztiak Laudioko plazan elkartuko dira 11:30ean. Ongietorri ekitaldiak jai-giroa piztuko du, eta jarraian, 12:00etan, ekitaldi nagusia egongo dute.

12:30etik aurrera animaziorik ez da faltako Laudioko kaleetan zehar, musika kalejira, buruhandiak, txosna eta beste hamaika ekimen egongo baitira plaza inguruan.

12:30ean ere, Berbodromo erraldoia jarriko dute martxan eskualdeko *ahobizi* eta *belarriprest* guztien laguntzarekin. Bertan 11 egunez euskaraz bizitzeko apustua egin duten herritarrak

**ESKUALDEAN INOIZ
EGINDAKO HERRI
BAZKARIRIK
JENDETSUENA EGITEKO
ERRONKA DUTE**

**GAUEAN ZE ESATEK!
TALDEAREN
KONTZERTUA ETA
LEHIAN-EN ERROMERIA
IZANGO DIRA**

elkartuko dira, eta Euskaraldiak norberak bizitako esperientziak kontatuko dizkiote elkarri.

Herri bazkari handiena
Eskualdean inoiz egindako herri bazkaririk jendetsuena antolatzea; erronka hori jarri diote euren buruei egunaren antolaketan dabilzatenek. Aldai plazan izango da bazkaria, 14:30ean.

Ehunka lagun elkartuko dira bertan, eta horretarako eskualde osoko 41 puntutan egongo da bazkariko tiketa erosteko aukera. Tiketak 5 euroko kostua izango du eta bi plater, ogia, edaria eta postrea barnebilduko ditu. Bazkarirako txartelak erosteko azken eguna azaroaren 29a izango da, osteguna. Tokiko produktuekin sukaldatuko dute, eta menuan aukera beganoa ere egongo da.

Jaiak etenik ez
Bazkalostea ere ekintzaz beterik egongo da. Besteak beste, haurrentzako ekintza ugari egongo dira: ipuin kontalaria 15:30ean eta tailerrak 16:00etatik aurrera. Nagusiagoek ere izango dute dibertitzeko tartea, 16:00etan Barry Manleyren bakarriketa umoretsuaz gozatzeko aukera izango baitute. 17:30ean txokolatea eta gaztain erreak banatuko dituzte.
Dantzatzeko grinak ere arratsaldeko tarte zabal bat hartuko du. 16:30ean

"Dantzatloi Herrikoa" egingo dute. Bertan, eskualdeko hainbat dantza talderen eskutik eta Ziriki eta Miriki pailazoek aurkeztua, euskal-dantzak, zunba edota areto-dantza bezalako estiloak nahastuko dituzte. Erritmoarekin jarraitzeko, haurrentzako Diskotxantxa ikuskizuna egingo dute Ziririk eta Miririk.

Kontzertuen tartea

Iluntzean herriko plazako kontzertuek hartuko dute jaiaren lekukoa. Ze Esatek! ska talde gipuzkoarra izango da musika eskaintzari hasiera ematearen arduraduna, 18:30ean. Ostean, Lehian erromeriak girotuko du herriko plaza. 22:00etan emango diote amaiera aldarrikapen jaiari, Aiaraldea urtean 365 egunez euskalduna dela ozen aldarrikatuz.

Bestetik, abenduaren lean ospatuko dute Euskararen Eguna Baranbion. Egun osoko egitaraua prestatu dute Garrastatxun: dianak, mendi martxa, herri bazkaria, trikitilarien emanaldia eta irrintzi txapelketa. ■■■



Mondragon Unibertsitatea

Learning from reality

ATE IREKIAK

UNIBERTSITATE GRADUAK

2018/19

Mundu errealean lan egiten ikasten dugu, errealtatea bertatik bertara ezagutzen dugu.

Nerea Fajarnés Barcia
Donostia-San Sebastián.
Ikus-entzunezko Komunikazioa. 2. maila.

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE URTARRILAK 12
LARUNBATA 10:30

GOIERRI OTSAILAK 2
LARUNBATA 10:30

ORONA IDEO ABENDUAK 15
LARUNBATA 10:30

ATE IREKIAK HIRIETAN:
DONOSTIA ABENDUAK 18 18:00
Kursaal Jauregia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
— Basque Culinary Center

DONOSTIA ABENDUAK 15
LARUNBATA 10:30

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA ABENDUAK 15
LARUNBATA 11:00

ARETXABALETA ABENDUAK 15
LARUNBATA 11:00

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI ABENDUAK 13
OSTEGUNA 18:00

BIDASOA ABENDUAK 15
LARUNBATA 11:00

BILBAO ABENDUAK 15
LARUNBATA 11:00



11 EGUN EUSKARAZ

MURRIO

EUSKARALDIA




AZAROAK 30 · OSTIRALA
LABORAL KUTXAREN PAREAN

17:00 - 18:30 EUSKAL DISKO FESTA
ASPALTZAREN TAILERRAK ETA PUZGARRIA

20:30 - 22:30 NAFARROA KANTUZ
TALDEAREKIN KANTUKADA TABERNETATIK

ABENDUAK 3 · ASTELEHENA

17:00 ASPALTZAREN TAILERRAK

18:30 KANDELEN ARGIEPEAN EKITALDIA

AMURRIOKO UDALAREN EUSKARALDIAREN
I. BIDEO LABURREN LEHIAKETAKO
IRABAZLEEN PROIEKZIOA

TXOKOLATE JANA





Sorpresa ugari Gorbeialdean

Hizkuntza ohituretako inertziak aldatzea zaila bada ere, Euskaraldiarekin hainbat "sorpresa" izan dituzte Gorbeialdeko herrietan, eta orain arte ohikoak ez ziren elkarrizketa elebidunak izan dira.



Milaka lagun ari dira txapa soinean egunotan; irudian, Zigoitiko hamaikakoa. UNAI PASCUAL

ANAKOZ AMENABAR

Prestaketa luzearen ostean, fruituak ematen ari da Euskaraldia Gorbeialdean. 1.300 lagun baino gehiago ari dira ariketa sozialean, "gogotsu eta konpromisoz" Manex Agirre kuadrillako euskara teknikariak azaldu moduan, eta hizkuntza ohituretan nabari dira hizkuntza "aldaketa txikiak".

Aramaion, esaterako, aldaketak izan direla dio Agirrek. Bertako euskararen ezagutza datuak, Gorbeialdeko gainerako udalerrietakoekin alderatuta, altuak dira, baina Euskaraldiak helburu berberak

ditu han ere, euskarazko hizketaldiei eutsi eta areagotzea. "Beharbada kalean nabaritu da gutxien aldaketa hori, baina inguru domestikoan izan dira keinuak eta harremanak aldatu dira; euskaraz egin ez baina ulertzen duten gurasoekin, belarriprest txapa jarri duen

GORBEIALDEAN 1.300 LAGUNEK EGIN DUTE BAT ARIKETAREKIN, ETA NABARI DIRA ALDAKETAK

dendariarekin... beharbada aldaketa puntualak dira, baina nabaritu dira".

Eta, Aramaion bezala, Kuadrillako beste herrietan ere izan da aldaketarik egunotan. Euskara hegemonikoa ez den lekuetatik harago – eskola, kultur etxe, ludoteka...–, horietan euskara entzutea ohikoagoa baita, "sorpresak" izan direla aipatu du Agirrek. "Euskaraldiko batzordekideek esaten dute sorpresak izan direla, euskaraz ulertuko ez zutela uste zuten jendearekin batik bat". Izarra, Murgia edo Legution konpromisoa hartzeko lan handia egin dutela gogoratu



du, dendariekin besteak beste; "eta hori agerian geratu da, beste giro bat dago eta beste praktika batzuk ikusten ari gara egun hauetan".

Asteburu betea

Hamaika eguneko ariketa amaitu bitartean, hamaika ekitaldi dituzte prest. Murgian, esate baterako, Ane Gebara ipuin kontalaria izango dute txikienek, eta *ahobizi* eta *belarriprestak* elkartu eta esperientziak trukatzeko afaria; Aramaion bikoizketa tailer bat antolatu dute ostiralerako; Izarran Malatu taldearen kontzertua eta umeentzako tailerra izango dira astelehenean; eta Legution umorezko bakarrizketa izango da ostiralean eta *Errementari* filma ikusi ahal izango dute igande arratsaldean. ■■■



Gorbeialdean, Euskaraldia hasi aurreko formazio saio bat. GORBEIALDEA

**ABENDUAREN 3A
BESTE 11 EGUNEN
HASIERA IZANGO DA!**

EUSKARALDIA

ZUIAKO UDALA

Zailtasunek handitu dute

Euskararen Egunaren harira, Añanako Kuadrillan ekitaldi ugari antolatu dituzte: Gesaltza Añanan da hitzordu nagusia larunbatean, eta igandean Gaubeako merkatuan bilduko dira euskaltzaleak.

ESTITXU UGARTE LOPEZ DE ARKAUTE

Arabako kuadrillarik handiena da Añana zabaleran, eta hamar udalerrri biltzen ditu guztira, oso izaera desberdinekoak.

Zanbranak Kuartangora eta Gaubeatik Iruña Okara herri txiki askoz osatutako eskualdea da, eta populazioa oso banatuta bizi da. Gaztela eta Leongo mugan egoteagatik, gainera, gaztelania da kultura eta hizkuntza erreferentzia nagusia udalerrri askotan, eta bertako biztanle askok Miranda de Ebron (Burgos, Espainia) lan egiten dute edo bertan ematen dituzte tarte libreak.

Zailtasunak zailtasun, urrats handiak egin dituzte bertako eskoletatik, Kuadrillako Euskara zerbitzutik eta bere garaian oso dinamikoa izan zen Euskara Añanan Mingainean elkartetik euskara bultzatzeko, eta batik bat haurrak eta gazteak euskalduntzeko. Halaber, añañar heldu asko euskara ikasten ari da azken urteetan.

Lan horren isla da 300 bizilagun inguruk izena eman dutela Euskaraldian, eta ekainetik gaur arte lan handia

egin dutela Euskaraldiaren antolaketaren batzordean buru-belarri ibili diren hogeitik gora lagunek. Hala, Añanako Kuadrillako euskaldunen sare berri bat sortzen ari dira, eta etorkizunera begira ere planak egin dituzte: herri bazkaria antolatu dute otsailean Kuartangoko sagardotegian, Korrikan parte hartzeko asmoa dute...

'Errementari' Iruña Okan

Dena dela, lehendabizi asteburu honetako erronkari eutsi beharko diote eskualdean. Izan ere, Euskaraldian erabat murgilduta eta Euskararen Egunaren atarian, hainbat ekitaldi antolatu ditu Añanako Kuadrillako batzordeak. Ostiralean, azaroaren 30ean, esate baterako, *Errementari* pelikularen proiektzioa eta Paul Urkijo zuzendariarekin mahai-ingurua izango dituzte Langraiz Okako gizarte etxean, 18:00etan. Ondoren, 20:00ak aldera, poteoa egingo dute trikitalariekin herriko tabernetatik.

Abenduaren 1ean, larunbatean, berriz, Gesaltza

Añana aukeratu dute ekitaldi nagusia antolatzeko. Hartara, goizetik hasiko dira herri kirolarekin herria astintzen; haurrentzat zein helduentzat zuzendutako kirol-jarduera parte-hartzailea izango da, eta 12:00etan hasiko da, herriko plazan. 15:00etan, berriz, bazkari herrikoia antolatu dute Gatzalde elkartearen. 14:00etan hasiko da haurrentzako bazkaria, eta jarraian txikientzako tailerrak egongo dira. Modu horretan, 15:00etan helduentzako bazkaria hasi ahalko da.

Bazkalondoan, bakarriketa izango da Jose Cruz Gurrutzagarekin, 16:30ean, elkartearen bertan, eta ondoren, 18:00etan, Kidam magoak Gatz Haraneko erabilera anitzeko gelan magia ikuskizuna eskainiko du, adin guztientzako publikoarentzat. Eguna borobiltzeko, 19:00etan euskaraokea eta dantzaldia izango dira bolatokian.

Merkatuan, jokoak eta musika

Igandean, abenduaren 2an, euskararen aldeko ospakizunak Gaubeako ekoizleen merkatua



AÑANAKO KUADRILLAKO EUSKALDUNEN SARE BERRI BAT SORTZEN ARI DA PIXKANAKA

mugituko dira. Izan ere, hilabeteko lehen igandea izateagatik Uribarri-Gaubeako frontoian hitzordua dute inguruko nekazariak, artisauek eta herritarrek. Abenduko azoka gainera berezia izan ohi da, eta aukera hori baliatuta eta antolatzaileen babesarekin, euskara plazara aterako dute. Hala, 12:00etatik aurrera egurrezko jolas erraldoiak egongo dira azokan bertan umeentzako, eta euskal musikak alaituko du goiz osoan merkatuko giroa. ■■■



'Egur taupadak' haurrentzako antzerkia, iragan ostiralean Ribabellosan. EUSKARA TALDEA



legutioko udala

legution euskarak

365 egun ditu!

Lautadan, pauso bat aurretik

'75 ordu euskaraz' ekimenaren ostean, Euskaraldiak beste astindu bat eman die hizkuntza ohiturei Lautadan; lehen ekinaldi hartan egindako urratsa baliagarri izan da hamaika eguneko ariketan.

ANAKOZ AMENABAR

Euskaraldiak ez ditu lokartuta harrapatu Lautadan. Euskarari eguneroko solasaldietan bultzada emateko erronka aspaldi jarri zuten abian inguru hauetan, arrakasta handiarekin gainera. "2016an Agurainen 75 Ordu Euskaraz egin genuen, eta bizipen politak izan genituen; bertatik, hain zuzen, etorri da Euskaraldia martxan jartzeko talde eragilea", azaldu du Asier Lafuentek ALEA FM saioan.

Oraingoan ere, zitzada garrantzitsua eman diete lagunekin, familian, lanean edo eskolan izaten diren hizketaldi, 1.550 lagunek eman baitute izena *ahobizi* edo *belarriprest* modura.

Ariketa sozialean lehenengo rola aukeratu du Joseba Rubio irakasleak, eta fin betetzen ari da beharra, bikotearekin – *belarriprest* da bera– eta seme-alabekin. "Elkarrizketa sinpleak, baina, ohikoa ez den bezala, euskara hutsean egin dugu. Inertziak aldatzen ari garen sentsazioa izan dut", azaldu du Rubiok. Lanera ere txapa paparrean jantzita joan da egun hauetan, eta bidean "egun on" batekin agurtu ditu ezagunak, eta hala erantzun diote denek. "Ikastolara heldu naiz; lanera. Hemen ez dago estres linguistikorik. Hasieran lankideekin euskaraz eta gero ikasleekin euskaraz: ez dago besterik".

Rubioren modura, hamaika lagunek egin dute bat ekinaldiarekin, eta txoko ugaritan nabari daiteke hori. Izan ere, *Lautadan, euskaraz egiten duenari euskaraz egiten dio*gu dio Agurainen egin berri duten horma-irudi batek, garai bateko azokako saltzaile baten ahotan, eta hala erantzuten ari dira. "Bi biztanletik batek euskaraz ulertzen du, baina gure helburua da erabilera hori igotzea, eta horretarako oso inportantea da gure ohitura linguistikoak aldatzea;

Euskaraldia horretan lagungarri izaten ari da", nabarmendu du Lafuentek.

Euskararen basoak

Azken hilabeteetan ekitaldi ugari izan dira Lautadako herri guztietan, eta lan horretan eragiten jarraitzeko asmoz bi ekitaldi nagusi antolatu dituzte Euskaraldiari amaiera eman eta abenduaren 3an ospatuko den Euskararen Egunaren bueltan.

Hala, igandean, abenduaren 2an, Lautadako hiru herritan – Dulantzin, Agurainen eta



Aguraingo plazan horma-irudia margotu dute. LAUTADAN EUSKARAZ

Araian-"Euskararen basoak" irudikatuko dituzte. *Belarriprest* eta *ahobiziek* zuhaitz bat landatzeko aukera izango dute, 12:00etan antolatutako jardueran. "Zure hizkuntza ohitura berriak luzaro irauteko" dio plazaratu duten afixak, eta horretarako ahalegina egingo du Lautadako Euskararen Komunitateak.

Astlehenean, berriz, Euskararen Egunean, entitate sustatzaileak elkartuko dituzte Agurainen; *ahobizi* eta *belarriprest* metodologia sustatu duten lagunak elkartuko ditu Euskararen Komunitateak. "Borondate hori publiko egin nahi dugu, eta eskerrak eman egin duten lanagatik", azaldu du Lafuentek. Guztira, 172 entitate sustatzailek bat egin dute Lautadan pauso erraldoi hau eman ahal izateko. ■■■



1.550 lagunek parte hartu dute Lautadako Euskaraldian. LAUTADA EUSKARAZ



INDUSTRIALDIA



JARDUERAK

Izen-ematea gomendatua:
industrialdia.eus

INDUSTRIA-ONDAREA EZAGUTZEN
FOURNIER KARTA MUSEOA
HAURRENTZAKO TAILERRA
AZAROAK 24

HIRIKO IRAGAN INDUSTRIALA
MARRAZTEN
MARRAZKI-TAILERRA
AZAROAK 25

GASTEIZ, INDUSTRIA-HIRIA
BISITA AKTIBOA
ABENDUAK 1, 8 ETA 15

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

TURISMA, MERKATUARRITZA
 ETA KONSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
 COMERCIO Y CONSUMO

Mendian izanik, aldaparik ez

Gogo askorekin prestatu dute Euskaraldia Mendialdean, eta jendea animatzeko bideo sorta ederra prestatu dute. Kanpezun eta Maeztun ez ezik, kuadrilla osora zabaldu dituzte ekimenak.

JUANMA GALLEGO

Kanpezun, Birgaran eta Urizaharrean egindako ekitaldi berezien bitartez ongietorria eman diete ostiralean Euskaraldiari Mendialdeko herritarrek: gaua heltzearekin batera, txapa-jartze ekitaldia egin dute bertan.

Lagranen eta Ataurin, berriz, larunbatean abiatu dituzte ekimenak. Mendialdeko Aisia programaren baitan, gazteenei begira jarri dira Lagranen: aiton-amonen jolasak lantzeko

tailerra egin dute, eta, ondoren, Ines Bengoaren eskutik ipuin kontaketa izan dute. Arratsaldean, berriz, Atauriko tabernan Ane Gebarak helduentzako prestatutako narrazio ikuskizuna antzeztu dute, *Harriek kontatu didatena* izenburupean, txalapartaren doinuez lagunduta.

Erronkari eusten laguntzeko, astean zehar askotariko ekimenak izan dituzte Maeztun eta Kanpezun, bereziki haurrak gogoan edukita: ludoteka, pintaketa eta putxea... baina


helduek ere aisialdirako tartea izan dute; mingainak dantzan jartzen lagundu nahian edo, mintzalagun saioa eta poteoa egin dituzte.

Bazkariak

Astebururako planei dagokienean, larunbaterako bertso-bazkaria antolatu dute Kontrastan, Ane Labaka eta Julen Zulaika bertsolariekin. Igandean Maeztun bazkaria egingo dute, eta, ondoren, euskal musikarekin girotuko dute arratsaldea. ■■■



Euskaraldiari hasiera emateko pintaketa kolektiboa egin dute Maeztun. EUSKARALDIA



2018

Abendua

OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA

GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA

02 ig. | 19:00 **Kontzertua**



Gonbidapenak Oihanederren

Parradust
Aitzina Folk Jaialdia

AEFAT Elkartearekin elkarlanean

04 as. | 19:00 **Ikus-entzunezkoa**



Le nouveau
Hizkuntza: frantsesa

Filmazpit zinema jatorrizko bertsoan
euskarazko azpitituluekin

13 og. | 19:00 **Aurkezpena**



Hesian "Hasiera"
Diskaren aurkezpena
& Kontzertu akustikoa

11 Ber Bi Festibala

23 ig. | 21:00 **Kontzertua**




Gonbidapenak Oihanederren

Montauk "Geruzak"
Kontzertua 360°tan

Gazte Sortzaileak beka

03 al. | 20:15 **Ikuskizuna**



► Ur biltegian ◀

Esku harriak: Oteizaren (h)aria
MugMus laborategia

11 Ber Bi Festibala

05 az. | 19:00 **Mintzodromoa**



► Ur biltegian ◀

Mintzodromoa
Euskaraldiaren balorazioa

11 Ber Bi Festibala

19 az. | 19:00 **Aurkezpena**



Etxera bidean
Juan Carlos Etxegoien "Xamar"


04 as. | 18:00 **Aurkezpena**



Izaskun Arrueren urratsen atzetik
Miel A. Elustondo

11 Ber Bi Festibala

12 az. | 19:00 **Ikus-entzunezkoa**



Mundu bat ahoz aho
Beñat Gaztelumendi

Begi Belarri, ikus-entzunezkoen zikloa
GEU Elkartearekin elkarlanean

20 og. | 19:30 **Kontzertua**



► Falerina Tabernan ◀

Txuma Murugarren

Eskilarapeko Soinuak, formatu bakiko
kontzertuen zikloa

Gabonetan jai Familia jarduera



Gonbidapenak Oihanederren

2018/12/28 - 18:00

BADATOR SORGINA TXORULINA!
Erica Liqueste

3-8 urte

Ortulo Artoan

2019/01/02 - 12:00

MUSIKA GALDUAREN BILA
Eneko Oteizarieta

4-12 urte

Otean musika tailerra

2019/01/03 - 12:00

ZUTUBERRAK
Eidabe

7-14 urte

Otean UrbanDance emanaldi parte-hartzailea

2019/01/04 - 12:00

BUALA
Txaloka antzerkia

4-10 urte

Otean sakaldirritza tailer-bakia

Goian ekin elkarlanean

OIHANEDER.EUS
FRAY ZACARÍAS MARTÍNEZ, 2 - VITORIA-GASTEIZ

LAGUNTZAILEK



ANTZOLTZAILEK



OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Mantso, baina aurrera

Lantziego izango da aurten, Arabako Errioxan, Euskararen Egunaren epizentroa, bertan bilduko baitira jarduera guztiak; Euskaraldian mobilizatu dituzten euskaldunak harremanak estutzea espero dute.

ESTITXU UGARTE LOPEZ DE ARKAUTE

Lantziegon ospatuko dute aurten Arabako Errioxako euskaltzaleek Euskararen Eguna, asteburuan. Aurretik, Euskaraldiaren harira hainbat ekitaldi, aurkezpen eta batzar egin dituzte Kuadrillako herri guztietan.

Euskaraldian izena emateko prozesua "mantso" joan dela aitortu zuen Mikel Lopez Arabako Errioxako kuadrillako euskara teknikariak duela aste batzuk BERRIAK egindako erreportaje batean: "Jendeari kosta egiten zaio hasieran. Gure kasuan, gainera, motelago ibili gara, mahats bilketa garaia delako, eta horren eragina sumatu dugu izena emateko orduan". Arabako Errioxan, oro har, 500 lagunek baino gehiagok eman dute izena.

Oztopoak oztopo, jendetza mobilizatzea lortu dute Bastidan, Guardian, Lantziegon..., eta asteburuan Arabako Errioxako euskaldunen arteko harremanak estutzeko eta egindako lana ospatzeko egitarau luzea antolatu dute.

Hala, larunbatean, abenduaren 1ean, 20:00etan pizza-poteoa egingo dute Lantziegoko plazatik abiatuta, eta 21:00etan Kasikojolabubilla elkarteak antolatutako kontzertuak izango dira, Wood Strings taldearekin eta Sara Alonso kantariarekin.

Igandean, abenduaren 2an, 11:00etan, Euskararen Aldeko Martxa abiatuko dute Lantziegon, eta 12:00etan pregoia irakurriko dute, sariak banatuko dituzte eta hamaiketako egingo dute. Ordu laurden beranduago

hasiko dira puzgarriak eta umeentzako tailerrak. 13:00etan, berriz, Eoinian izeneko elektrotarangak alaituko ditu herriko kaleak. Herri bazkaria kiroldegian egingo dute, eta ondoren herri kirolak eta erromeria izango dira, Fan&Go taldearekin.

Assa Ikastolan, jai

Lapuebla de Labarca herriko Assa ikastolan ere ospatuko dute Euskararen Nazioarteko Eguna. Astelehenean, abenduaren 3an, kalejira egingo dute ikastolako haurrek herrian zehar; bertsoa, kantuak eta pregoia ez dira faltako. 11:30ean, berriz, DJ Mattinen ikuskizuna izango dute herriko plazan, 15:00etan kortxo tailerra antolatu dute, 16:00etan hasiko da txokolatada eta gero buruhandiak agertuko dira. ■

EUSKARAK
365
EGUN

M Mendia
ptika

www.mendiaoptika.eus



Lapuebla de Labarcen mural bat margotu dute Euskaraldiari ongietorria egiteko. EUSKARA TALDEA

Euskarak
EGITEN GAITU HERRI
ehbildu

AHO BIZI
BELARRI PREST

Keinu txikiekin, pauso handia

Ia ehun lagunek parte hartu dute Trebiñuko Euskaraldian, eta "hainbat sopresa txiki" izan dira hizkuntza ohituretan; larunbaterako, Euskararen Eguna antolatu dute Baxaurin.

ANAKOZ AMENABAR

Espero baino lagun gehiago murgildu dira Euskaraldian Trebiñun. 90 bat lagun parte hartzen ari dira ariketa sozialean, eta azkeneko egunetan 100 izatera helduko direla uste dute. "Helburua 50 lagun elkartzea zen, eta espero baino handiagoa izan da erantzuna; 2.000 lagun bizi direla kontuan hartuta, kopuru polita da", azaldu du Beñat Goitia Trebiñuko euskara teknikariak.

Euskaraldiak kalean izan duen isla neurtzea zaila dela aipatu du Goitiak, baina keinu

txiki batzuk nabaritu dituzte. Trebiñuko udaletxean ez dago langile euskaldunik, baina Argantzungoan sorpresa izan dute, esaterako; hamaika egunez *belarriprest* txapa paparrean jantzita joan da hango administraria, bertaratu direnzentzako pauso handi bat. "Egun batetik bestera aldaketa izan da, eta herritarrek ikusi dute Argantzunen gauza txikiak euskaraz eska daitezkeela; borondate pixka batekin, posible dela ikusi dute".

Jaialdia, Baxaurin

Euskaraldiari lotuta, hainbat ekitaldi izan dira. Joan den

asteburuan, esaterako, *Errementari* pelikula ikusi eta Gorka Lazkano filmeko euskara arduraduna izan zuten hizlari.

Asteburu honetarako, berriz, egun osoko ekitaldia prestatu dute Baxaurin: Trebiñuko Euskararen Eguna. 12:30ean hasiko dira ekitaldiak; Argantzungo pilota eskolako haurren pala partiduak izango dira, Ane Gebara ipuin kontalaria ostean, eta herri bazkaria fanfarre batekin. Bazkalostean, Felipe Zelaieta bertsolaria eta Mugaldekoak taldekoak arituko dira, eta gazteen kontzertuekin amaituko dute gauean. ■



Mugaldekoak taldeak kontzertua eskainiko du Trebiñuko Euskararen Egunean, Baxaurin. MUGALDEKOAK

OTORDUA

**Etxean eginiko
pizza erraza**

Osagaiak

- Indar ertaineko irina, 500 g
- Ura, 280 g
- Olioia, 20 g
- Legami freskoa 3g edo legami lehorra 1,5 g
- Gatza, 10 g

Prestaketa

- 1. Jarri katilu batean irina eta ondo txikitutako legami zatiak.
 - 2. Ura, olioia eta gatza jarri, eta ondo nahastu dena koilara batekin edo egurrezko espatula batekin. Ez utzi zati lehorrak irinean. Erraz landuko den bola leun bat sortuko da. Utzi atsedenean 10 minutuz.
 - 3. Atera bola katilutik, mahaira eraman eta tarte batez oratu, leun egon arte (10 minutu).
 - 4. Irinaren zati lehorrak garbitu katilutik, olioiz igurtzi eta utzi bola barruan jalkitzen, urarekin bustitako trapu batekin estalita. Gutxi gorabehera ordu eta erdi bat egon behar da atsedenean, eta ahal izatekotan gau osoa pasa hozkailuan.
 - 5. Piztu labea eta berotu (250°).
 - 6. Bola hazi denean atera katilutik kontu handiz eta zapaldu leunki eskuekin, gasa kentzeko. Egin 4 bola. Utzi 20 eta 30 minutu artean trapu batekin estalita.
 - 7. Jarri erretilu batean labean erabiltzeko papera.
 - 8. Pizzari forma emateko eskuz egin dezakezu; bola berriro zapaldu eta esku batetik bestera pasatu, edo irin pixka bat jarri mahaiaren gainean eta barrutik kanpora masa arrabolaz edo botila batez zabaldu.
- * ARTEPANeko masa erabilita ere egin daiteke. Kasu horretan masa hozkailuan desizoztu behar da 6 orduz gutxienez eta bi bola egin, 200 gramokoak.
- 9. Jarri tomate saltsa, gazta eta aukeratutako osagai guztiak eta olio turrusta bat gainetik bota. Oreganoz hautsezatu.
 - 10. Labean sartu sei edo zortzi minutuz. Labearen behelaldean jarri, eta, 2-3 minutu igarotakoan gehiegi egosi bada, erdialdera aldatu pizza. Labearen arabera alda daitezke denbora hauek.

artepan





Izan zaitez ALEAkide

ALEA aldizkariak laugarren urteurrena ospatzeko ekitaldia egingo du ostiralean, Artium museoan, 20:00etan. ALEAkide diren guztiei gonbidapena luzatu die lantaldeak bertan topo egin dezaten.

ERREDAKZIOA

2015ko urtarrilean ekin zion bere ibilbideari Arabako Alea egitasmo komunikatiboak, eta, aldez aurretik, Euskararen Nazioarteko Egunean, abenduaren 3an, egin zen jendurrean aurkezpen publikoa. Egun hartan jaso zuten arabarrek lehendabizikoz ALEA aldizkariaren 0 zenbakia esku artean.

Ibilbide laburra izan arren, proiektuak bilakaera nabarmena izan du, eta bidetik sortu dira *alea.eus* albiste atari digital berria eta baita gaur egun ezagutzen dugun ALEA aldizkariaren formatu berria ere.

Bilakaera labur baina oparoa izan da orain artekoa, eta etorkizunera begira ere hazten jarraitzeko erronkari eutsi nahi dio ALEAK.

Urteurren ekitaldia

Orain arte egindakoak gogoratu eta etorkizunera begira etorriko direnak ospatzeko, ALEAK urteurren ekitaldia antolatu du datorren ostiralerako Artium museoan, 20:00etan. ALEAKo kolaboratzaile, irakurle, iragarle



2014ko abenduan argitaratu zen ALEA aldizkariaren 0 zenbakia. ALEA

eta orokorrean ALEAkide guztiei bertaratzeko gonbidapena luzatu nahi die ALEAKo lantaldeak, kolaboratzaile sare zabal horri esker garatu eta hazi baita proiektua.

Urtarriletik aurrera sorpresa berriak aurkitu ahalko dituzte Arabako euskaldun guztiek,

baina giroa berotzen hasteko, ospakizun batekin eskerrak eman nahi dizkie ALEAK orain arte bidelagun izan dituen lagun guztiei.

Ekitaldian magia ikuskizuna, *photocall* berezia, Bidelapurak taldearen kontzertua eta bestelakoez gozatzeko aukera izango da. ■■■



DEMODE QUARTET

MUSIKAL
guztiak
IAIA



945243828 ttipia@ttipia-kultura.com



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean.

Urte oso baterako harpidetza, 55 euro.

alea.eus/harpidetzak

Harpidedunentzat mezu

Abenduko zubia dela eta, datorren astean ez da aldizkaririk argitaratuko.

Hurrengo zenbakia abenduaren 14an izango duzue esku artean.

Ondo izan!

Lizarralde soinua 

Audio Profesionala, Megafonia.

www.lizarraldesoinua-txalaparta.eus
txala@txala.euskalnet.net
 945 22 69 77
 GASTEIZ



Serigrafia
Tanpografia
Inprimatze digitala
Enpresa opariak

Eskaintza bereziak

Avda. del Cantabrico 12, Pab 26 / 01013 Vitoria-Gasteiz
 Tel: 945 25 49 32 / Emaila: info@impresion-arte.com
www.serigrafia-impresionarte.es

RPS 84/14

San Frantzisko Kalea, 2 - Gasteiz
www.farmaciapuente.com

Confecciones Pinedo, S.L.

Euskal Jantziak

San Antonio, 11
 Heraclio Fournier, 15
 GASTEIZ



www.confeccionespinedo.com

AGENDA Azaroaren 30etik abenduaren 13ra

Euskararen agenda

MUSIKA

AMURRIO Izate Faltsua

Childrain, Meltdown, Broken Horizon eta Minervarekin batera.

Ostirala 30, 20:00etan, Burubion.

BAXAURI Mugaldekoak

Trebiñuko Euskararen Eguna.

Larunbata 1, 18:30ean.

LANTZIEGO Fan&Go

Arabako Errioxako Euskararen Egunaren barruan.

Iganda 2, 18:00etan.

GASTEIZ Libe

Akustika zikloaren barruan.

Iganda 2, 19:30ean, Luis Aranburu musika eskolan.

GASTEIZ Hesian

Kontzertu akustikoa eta disko berriaren aurkezpena.

Osteguna 13, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

ANTZERKIA

AÑANA Bakarrizketa

Jose Cruz Gurrutxagarren bakarrizketa.

Larunbata 1, 16:30ean, Galtzalden.

AGURAIN 'Txarriboda'

Hika teatroaren eskutik.

Larunbata 1, 20:00etan, Harresin.

GASTEIZ Parradust dantzan

Aintzina Folk jaialdiaren ikuskizuna.

Iganda 2, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.



BIDLAPURRAK

GASTEIZ Bidelapurrak

ALEA jaiaren barruan. Beste hainbat sorpresarekin batera.

Ostirala 30, 20:00etatik aurrera, Artiumen.

GASTEIZ 'Esku harria: Oteizaren (h)aria'

Mugmus laborategiaren eskutik, musika, dantza, eskultura eta hitza batzen dituen ikuskizuna.

Astelehena 3, 20:15ean, Oihaneder Euskararen Etxean.

BERTSOLARITZA

LAUDIO Bertso jaialdia

Unai Agirre, Nerea Ibarzabal, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluzerekin.

Ostirala 30, 19:00etan, Audioalde antzokian.

GASTEIZ Bertso afaria

Uxe Alberdi eta Aimar Karrikarekin.

Ostirala 30, 21:00etan, Urkide ikastetxean.

KONTRASTA Bertso bazkaria

Ane Labaka eta Julen Zulaikarekin.

Larunbata 1, 14:00etan, tabernan.

IKUS-ENTZUN

IRUÑA OKA 'Errementari' pelikula

Filmaren ostean, mahai-ingurua izango da Paul Urkijo zuzendariarekin.

Ostirala 30, 18:00etan, gizarte etxean.

GASTEIZ 'Le Nouveau' pelikula

Filmazpit zikloaren barruan.

Jatorrizko bertsioan, euskarazko azpidatziekin.

Asteartea 4, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

GASTEIZ 'Mundu bat ahoz aho' dokumentala

Beñat Gaztelumendiren dokumentala. Kantua ardatz hartuta, kultura ofizialean agertzen ez diren ahotsetan barrena bidaia egin du dokumentalak. Ondoren, solasaldia izango da zuzendariarekin.

Asteazkena 12, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

HITZALDIA

GASTEIZ 'Izaskun Arrueren urratsen atzetik'

Gasteizko lehenengo andereñoari buruzko liburua. Miel A. Elustondo egileak aurkeztuko du.

Asteartea 4, 18:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

HAURRAK

OKONDO 'Zientzia eroa'

Haurrentzako tailer zientifikoa.
Ostirala 30, 17:30ean, udal liburutegian.

GASTEIZ 'Musua' ikuskizuna

Pirritx, Porrotx eta Marimotots.
Larunbata 1, 19:00etan, Buesa Arena pabiloian.

BESTELAKOAK

AMURRIO Kantaldia

Nafarroa Kantuz-eko kideekin batera, kantaldia herriko tabernetatik.
Ostirala 30, 20:30etik aurrera.

GASTEIZ Kandelen mosaikoa

Euskararen Eguna ospatzeko, kalejira eta kandelen mosaikoa egingo dute erdiguneko kaleetan, ALEA eta GEU elkartearen eskutik.

Astelehena 3, 18:30ean, Andre Maria Zuriaren plazatik abiatu eta Oihanederren amaituko da.

GASTEIZ 'Mintzodromoa'

Euskaraldia amaitu berri, balorazioa modu dinamikoan egingo da: mintzodromoa.

Asteartea 4, 18:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

**R
I
O
J
A**

GOSARIAK, HAMAIKETAKOAK, EGUNEKO MENUA
ASKOTARIKO KAZOLATXOAK, BOKADILDOAK
TORTILAK, PINTXOAK, TXERRI BELARRIA...

Erreserbak: 945 257082
Goizeko Setatik zabalik

NUEVO | BERRIA
Jatetxea eta taberna
Busturbi kalea 8
GAMARRA NAGUSIA



Jimmy jazz gasteiz

AZAROA

Os. 30 COOPER

ABENDUA

Lr. 1 DR. CALYPSO + THE TOASTERS + POTATO

Og. 29 FAMILIARENGAKO ROCKA METALLICA ESTALGABETUZ

EUSKARALDIA

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM

*Euskaraz hitz eginez
euskaraz entzunez
hizkuntza honekiko
erantzukizunez
elkarrekin euskaraz
egin nahi dugunez
guk Laboral Kutxatik
horri erantzunez
eskertu nahi zaitugu
naturaltasunez.*



**EUSKARAZ ERE,
NATURALTASUNEZ**